

PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Roots Organic Brand Errenteriako eta Oiartzungo gazte talde batek sortua da.

Proiektu honen helburua batetik, kontsumo arduratsua sustatzea da. Hau da, gure planeta kaltetzen ez duen moda sortzea. Bestetik, urte askotan aldatu ez den modaren industriari kutsu iraultzaile bat ematea.

Guk sortuko dugun enpresak, Roots Organic Brand, moda jasangarrian oinarrituriko produktu desberdinak salduko ditu. Esan dugun bezala, gure produktuak ekoizteko %100 birziklatuak izan diren materialak erabiliko ditugu.